

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Alde batetik, hainbat funtsezko baliabide fisiko izango ditugu eta honako hauek izango dira :

- Lokala, ezinbestekoa izango da ekintza guztiak burutzeko. Haurrak lokalean askatasunean jolastu ahal izango dute, hezitzaileak haiek behatu eta haiekin jolastu, ikastaro gehienak lokalean egingo dira baita ere...
- Ordenagailua hainbat gauzarako behar izango dugu, hurrekin ekintzak egiteko, ikastaroetarako, administrazio kontuetarako...
- Altzairuak berriz, jostailuak gordetzeko, material guztia gordetzeko, bai haurrena eta baita ere hezitzaileona...
- Telefonoa familiekin kontaktuan egoteko erabiliko dugu, hainbat modu ditugu familiekin kontaktuan egoteko eta bat telefono bidez da, beraz garrantzitsua izango da telefono bat izatea.

Beste alde batetik, funtsezko baliabide intelektualak izango ditugu, adibidez:

- Webgunea, webgune bat sortuko dugu. Hemen, gure informazioa eskuragarri egongo da, familiek haurren argazkiak igotzeko baimena emanaz gero argazkiak ere egongo dira, ekintza guztien datak igoko ditugu, gure kontakturen informazio guztia eta beste hainbat gauza.
- Antolaketarako abilezia, langile guztion artean antolatuko gara. Guztia aurrez aurretik antolatuta izango dugu. Gerenteak guztia antolatuko du hori baita bere ardura. Dena antolatuta eta kontrolpean dagoela ikusteko lankideekin elkartuko da. Langile bakoitzak bere karguan antolaketak egin beharko ditu, hau da, gerenteak antolatutakoaren barruan. Marketing lanak egiteko Miguelek bere antolaketa egingo du, zelan egin marketinga, zerekin hasi, zer material erabili... Hau dena aurrez aurretik antolatuta izango du, dena kontrolpean eraman ahal izateko. Informatikaz arduratzen dena antolatu beharko da baita ere. Bere kargu batzuk hauek dira: webguneaz arduratu, online hizketaldietaz arduratu, enpresaren plataforma teknologikoa administratzea, konpainiaren eraldaketa digitaleko prozesuaren buru izatea... horregatik kargua ondo eta kontrolpean izateko antolatu egingo da. Finantzetaz arduratzen dena administratu beharko da, diruaren kudeaketa zelan aztertu, diru-fluxuak zelan eta noiz aztertu, konpainiaren bizi- aktiboa zelan babestu...

Enara Azpitarte
Naia Mendia
Laura Solana
Eneko Munitxa
Miguel Lancao

guzti hori antolatu beharko du.

Azkenik, Enara ikerketa, garapena eta berrikuntzaz arduratuko da eta horretarako ere bere lana antolatu beharko du. Nola hartu neurriak enpresak ahalik eta etekinik handiena lor dezan, nola handitu errentagarritasuna....

- Finantzarako abilezia, finantzetaz arduratzen den langile bat izango dugu. Diruaren kudeaketa aztertzen du. Enpresaren eta estatuaren arteko diru-fluxuak aztertzen ditu, horiek guztiek dituzten kontsumo edo inbertsio beharretarako. Konpainiaren bizi-aktiboak babestuko ditu, finantza-erregulazioak betetzen direla ziurtatuko du, liburuak behar bezala ixten direla egiaztatuko du, eta direktorioarekin eta inbertsiogileekin eraginkortasunez komunikatuko du. Finantzen arloak eraginkortasunez jardun behar du, eta zenbait zerbitzu eman behar dizkio erakundeari, finantzen azterketa eta plana, besteak beste. Finantza-funtzioan eta enpresan aldaketak egitea sustatzen eta bideratzen du. Modu selektiboan, zenbait ekimen bidera ditzake, hala nola kostuen murrizketa, hornikuntzaren hobekuntzak, prezioen estrategia eta erakundeari balioa ematen dioten beste prozesu berritzaile batzuk.
- Sormena, sormena ezinbestekoa izango da hurrekin lan egiteko. Langile guztiok sormena daukagu.